

## 9. BALIABIDE KLABEAK

Proiektu honek aurrera egin ahal izateko baliabide klabeak hauek dira: paketeak mobilizatzeko garraioak, janaria enpakatzeko ardura duten ikasleak eta janaria gordetzeko erabiltzen diren tupperrak.

Garraioa oso funtsezko faktorea da enpresak funtziona dezan; izan ere, janaria helmugara eraman behar ez badugu, lehengo lana alferrikakoa da. Horregatik, ideia garrantzitsua da ikastetxeetako gurasoek edo irakasleek laguntzea paketeak gunetara eramaten, eta, horrela, esan daiteke elikatu ez ezik, ikastetxeak laguntzeko konpromezua duela, gurasoak eta irakasleak ere prest daudela enpresa horri laguntza emateko eta gurekin bat datozela.

Bestalde, guraso eta irakasleen lankidetzaz gain, garraio-enpresa bat kontratatu ahal izango da, entregak azkarragoak eta eraginkorragoak izateaz gain, garraioa seguruagoa izan dadin eta janaria baldintza onetan eta inolako eztabaidarik gabe irits dadin. Gainera, horrek profesionaltasun irudia ere ematen du, gurasoen boluntarioraz gain.

Ulergarria izan daiteke ikasleei nagikeria handia ematea lanean hastea, eta are gehiago ikastolan bada. Horregatik, lana guztiz borondatezkoa izango da, eta ez da inor enpresaren parte izatera behartuko, ezta lan egitera ere, nahi ez badu. Hori bai, zenbat eta jende gutxiagok izena eman, orduan eta besteek lan egin beharko dute, eta etekinak txikiagoak izango dira. Izan ere, laguntza osoa eskatzen dugu, proiektuak aurrera jarrai dezan.

Janaria garraiatzeko ontziak paperezko ontzi biodegradagarrietan sartuko dira, klima aldatzen laguntzeko eta etorkizunerako kaltegarria ez izateko. Baina elikagai likidoagoak garraiatzeko, zopak adibidez, berriro erabil daitezkeen tuppereak erabiliko dira, pertsoneri eman ondoren, nahi bezala erabil ditzaketenak eta bota beharko ez dituztenak; guzti hau “eco swap” enpresarekin batera egingo dugu.